

GIG 06

DEBAKO SEPTARIAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,71**

KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Lapari hondartzaren ekialdean, nodulu berezi-bereziz osaturiko filoi bat dago; Debako septariak ize-
nekoez osaturikoa, hain zuzen ere. Filoiak 15 m inguruko potentzia izango du seguruenik, baina fai-
la txiki batzuek zeharkatu arren, ezin da begi hutsez hauteman, ez baita Debako hondartzako flysch
beltzeko formazio tupatsuaren gainerako zatitik bereizten.

Septaria esaten zaie kanpo-morfologia esferikoa edo obalatuia duten noduluei. Badira metro-erditik
gorako diametroko ale bakan batzuk, baina Debako septariak 5 cm-tik 25 cm-ra bitarteko ardatz luzea
dute, oro har.

Kanpoko itxurak ez du inolaz ere aditzera ematen oso-oso modu berezian zartatuta daudela barrutik.
Septariak aktibitate mikrobianoarekin erlazionatuta daude. Erreakzio biokimiko hauek sideritaren aus-
peaketa eragiten dute hasierako noduloak sortzeko. Gogortzen den einan bolumena galtzen du eta
noduloa barrutik pitzatu egiten da. Pitzadura hauek kaltzitat batetzen dira bereziki, baina baita ere ba-
ritina eta piritaz. Kaltzitarekin kolore txuriak eta noduloaren beltzak sortzen duten kontrastea da Deba-
ko septareen bereizgarri nagusia.

Gaur egun Geoparkeak Septaria bilduma bat osatzen dihardu.

NOLA BERTARATU


Filoia Debako Lapari hondartzan dago.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Azaleramenduan ezin da ezer ikusi. Gaur egun, zenbait septaria ikusgai daude Zumaiaiko Algorri Inter-
pretazio Zentroan eta Debako turismo bulegoan.



Debako septaria baten barruko zartadura.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 552902 m / Y= 4794203 m / Alt.= 12 m



Septaria batek itsaslabarraren horman utzitako negatiboa.